

AMESTUTAKO ORTZIAN EGUZKI ETA GAR MAITASUN GALDUAREN XERKA

Hegal bi, hegada, eza,
itxaropen beltza.
Urratsa, noraezekoa,
gerorik bilatzen ez dute.
Ispiluan ikusia dute amets,
irudiaren aldaketaren beldurra.

Hegal bakarra, hegada kemena,
ahalmena, itxaropena,
urrats herrena.
Geroa, ordea, da argia
izana izan nahiaz,
eguzkia jaso nahi dute.

Ilunabar heldu da,
bi xoriak habian daude.
Batak, herrenak, lotuak,
oraindik Eguzki laguna dakusa,
besteak, askeak, hegaldunak,

galdurik, llargiren argi zuria dakusa.
 Argi bi, bata gezur, bestea egi.
 Goiza iristean, Eguzki dugularik lagun,
 batak ikusiko du,
 bestea izango dugu itsu.
 Haizeak, ordea, dugularik lagun,
 batek lortuko du hego bakarraz
 Eguzkiren zerura iristea, guztien pare.
 Hegaldun, hautatu bada,
 ez izan itsu.
 Kemena ukan, eta aukeratu argi gartsuena,
 min badagigu ere,
 zuri goxoak urratsak gida ez ditzan
 noraezeko amaigabeen.

Gau ilunean, garretan den habia,
 hartu Eguzkiren sua lagun, hotzak itzal ez zaitzan;
 sakontasun itsuan ere, bihotza ez ezik, begiak izan ditzan.
 Urrun hadi, urruntasunak hobeto ikusarazten badik,
 baina ez ahantzi garretan den habia,
 Eguzki zain baitzaio izango,
 ez baitzaio faltako.

Urrats ala hegada,
 bide bi,gero bat: Eguzki.
 Habia garretan den bitartean lagun dugu.
 Xori maingu, xori hegal-gabe

elkarrekin egin hegan,
elkarrekin eman urrats,
elkarrekin bizi bitez, Eguzki eta Gar,
piztua itzal ez dadin Ortzi amestuan.

Aita eta Ama
bi izan, uste bat,
izan gutxiko duzue ondorengo,
zuen geroa, hala ere, bere da.
Oroit gogo,
ezin hark baina, izan bi jasan.
Osa, maita, Aita eta Ama izan bitez bat,
maita ditzan izan ezinak,
sor ez bedi orain berri,
sal ez bedi izandako izena.
Aita, Ama, maita bada Gar
lor dezan Zeruko Eguzki.

Ez dugu itxaropen galdurik maitasuna duenik,
ez da maitasun galdurik inork ahanzten ez duenik,
ez da ondorengorik izanak maita ez ditzakeenik.
Geroak gogoan bitza bada, Eguzkiren hitzak,
bi izanetan nehork ez baitu bere baitan
geroaren erregurik ahaztuko.
maitasun galdurik ez baita geroa maite duenik.

Etxabun Aurkenerena
(Urruña)